AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3417

751/2012 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena. Honen bidez, M.ª Carmen Rodríguez Ramírez andrea Gipuzkoa Eskualdeko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzen da, eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzen.

Aztertu dugu Gipuzkoa Eskualdeko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen martxoaren 15eko 220/2012 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2012ko apirilaren 26ko EHAAn (82. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Kontuan izanik, aurkeztutako agiriak ikusita, M.ª Carmen Rodríguez Ramírez andrea deialdiko lanposturako aproposa dela, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela.

Kontuan izanik, M.ª Carmen Rodríguez Ramírez andrea, Osakidetzako langile finkoa, Gipuzkoa Eskualdean Erizainaren lanpostu funtzionaleko 2635 hurrenkera-zenbakiko plazaren titularra dena, Gipuzkoa Eskualdean Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatu dutela.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Carmen Rodríguez Ramírez andrea Gipuzkoa Eskualdeko Erizaintzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– M.ª Carmen Rodríguez Ramírez andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzea, izendapen hori ematen dioten egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.